

BEHIN MUNDUA BEREIA IZAN ZEN

Behin mundua bereia izan zen.

Debra Winding. 1944-1971.

Epitafio hori jartzea nahi zuen Debrak hiltzen zen egunean. Hala esan zion Taylorri. Atera beste tekila botila bat. Eta gogoratu zer jarri behar duten nire hilobian: Behin mundua bereia izan zen. Topa!

Hurrengo egunean, kax-kax jo zuen atea Brandyk 3714 logelan. Ez zuen inork ireki. Gorroto zituen ohean berandu arte egoten ziren bezeroak. Batez ere atean “do not disturb” oharra zintzilik jartzen ez zutenean. Bezperan bost tekila botila hustu omen zituen gela hartako bezeroak. Besoetan eraman behar izan omen zuen ohe-
ra Taylorrek. Oraindik mozkorra pasatzen ariko dun, izan hadi eskuzabala, emakumea, utzi ezan gela hori azkenerako.

Moteleko gainerako logelak txukundu zituen Brandyk 3714 logelako atea berriz jo aurretik, kax-kax. Ez zuen

inork erantzun. Brandy ez zegoen prest eskuzabalago izateko. Alde egin nahi zuen motel hartatik, etxean hiru haur zeuzkala zain esan zion Taylorri, ez zela bere ardura jendeak ez bazekien neurrian edaten. Eta 3714 logelako atea ireki zuen.

Debra Winding ohean zetzan. Lo, seko. Brandyk lurrean botatako tekila botila jaso zuen, eta mesanotxe gainean irekita utzitako pilulen potoa itxi zuen. Neskari erantzi gabe zituen sandaliak kendu zizkion eta lurrean utzi zituen, lerrokatuak, txukun-txukun. Maindireetatik tiratu zuen, ahalik eta zimur gutxien izan zezaten. Leioa ireki zuen Brandyk, baina pertsiana jaitsita utzi zuen, kanpoko argiak ez zezan Debraren deskantsua eten.

Taylorri neska lotan utzi zuela esan zion, moteletik alde egin aurretik. Inbidia ematen zuela, haur jaioberri bat zirudiela gozo-gozo lo. Bihar arte.

Hurrengo egunean, puntu-punttuan hasi zen Brandy Rome Beach moteleko logelak txukuntzen. Berriz jo zuen 3714 logelako atea. Eta inork ez zuen erantzun. Neska indarrak hartu eta martxa egina izango zela pentsatu zuen. Inor gutxik pasatzen zituen bide ertzeko motel hartan bi gau baino gehiago. Errekorra Nebraskako gizaseme bategi jarri zuen: lau gau pasatu zituen han. Phineas izena zuen. Ez zitzaion sekula ahaztuko Brandyri. Munduari 80 egunetan itzulia eman zion Phineas Fogg hark bezala. Taylorrek burla egiten zion, “hainbeste egun pasatzen badituk hemen, 80 egun baino gehiago beharko dituk

munduari itzulia emateko!”. Baina Nebraskako Phineas hark ez zuen Jules Vernerren istorioa ezagutzen.

Brandyk 3714 logelako atea ireki zuenean neska oraindik ohean lo zetzan. Gogoratu zen bezperan pilula pota bat itxi zuela. Alkohola eta pilulak nahasketa txarra ziren. Hori bazekien Brandyk berak ere. Neska esnatzea erabaki zuen. Ohean ez bazen, txarrean pasatu beharko zuen bestondoa.

Hurbildu zenean, oraindik ume jaioberrien gozotasun aurpegia zuen. Gustura zeramatzan 24 ordu baino gehiago lotan. Brandyk besoan ukitu zuen. Ez zen iratzarri. “Esnatu” esan zion. Ez zen mugitu. Maindireak kendu zizkion. Deus ez. Pertsianak altxatu zituen, eguzkiak gela hura argi zezan eta neska esnatu zedin. Alferrik.

Gainerako logelak txukundu zituen –oheak egin, lurrean botata zeuden botila hutsak jaso, zigarro, esperma eta kokaina arrastoak garbitu, komunak desinfektatu, leihoak ireki haizea sar zedin–. Berriz bueltatu zen 3714 logelara. Atea ireki eta bertatik begiratu zuen ohe gainera. Lo jarraitzen zuen neskak.

Taylorren barra aurretik pasatu zenean, 3714 logelako neskak oraindik lo jarraitzen zuela esan zion. Agian arazoren bat daukagu... pentsatu zuen ahots goran Taylorrek. Bai, gehiegi edan dik. Eta pilulak ere hartu zitian. Atzo potoa itxi nian. Erantzun zion Brandyk. Burua alde batera eta bestera mugitu zuen Taylorrek. Ez dun deus ulertu, Brandy, esan zion. Burua mugituz eta ahots goran. Zer ulertu behar diat ba gehiago? Brandyri ez zitzaion

gustatzen inork bera ezjakintzat jotzea. Zer ulertu behar diat ba, e, Taylor, esaidak? galdetu zuen haserre xamar.

–Hilda zagon neska hori.

–Hik uste?

Taylor eta Brandy 3714 logelara igo ziren. Taylor aurretik, burua alde batera eta bestera mugituz, Brandy atzetik, izuak jota. Logelako atea ireki zutenean, gela hartatik pasatu zen guztietan ikusi zuen postura berean zetzan neska lo, ume jaioberrien plazer aurpegiarekin. Taylorrek lepoan jarri zion hatza. Gero, belarria bihottzaren gainean. Hilda zagon, baieztatu zuen. Eta orain zer egingo diagu, e, Taylor? Izuak jotako galdera izan zen Brandyrena. Poliziari deitu.

Hain gustura zirudien lo... Ume jaioberri bat zirudien... pentsatu zuen Brandyk Poliziaren telefono zenbakia markatzen zuen bitartean. Taylorrek erregistro orrian begiratu zuen. Debra Winding gisa erregistratu zuen. Neskaren larruzko boltsa ttikian harrapatu zuen dokumentazioaren arabera, haren benetako izena ere Debra Winding zen. 1944/05/25. Findlay (Ohio).

Zertan ari dun etxetik horren urruti? Neska gaixoa... esan zuen Brandyk, Polizia Rome Beachera iritsi aurretik. Motelean Taylor eta biak bakarrik zeuden –eta hilotz bat 3714 logelan–. Behin mundua berea izan zen. Zer? galdetu zion Brandyk Taylorri. Zer esan duk? Behin mundua berea izan zen. Hori nahi zinan bere hilobian jartzea. Etxekoei esan beharko zienagu...

Poliziak ailegatu zirenean, Taylorrek 3714 logelara eramane zituen. Debra Winding hilik zegoela baieztatu zuten haiek ere. Eta forentse bati deitu zioten, joateko. Forentseak ere Debra Winding hilik zegoela esan zuen. Alkohola eta drogak. Gaindosia. Eta epaile judizial bati deitzeko. Poliziek 3714 gelan “frogak” hartu zituzten: pilulen potoa, Debra Windingen poltsa eta dokumentazioa, altzari tristeetako hatz markak...

Poliziek Taylor eta Brandy galdekatuko zituztela esan zuten. Taylor gela baten barrura sartu zuten. Brandyri kanpoan itxaroteko esan zioten, gero bere txanda izango zela. Brandyk Taylorrek hiru polizia agenteri kontatzen ziona entzun zuen Rome Beach moteleko pasillo batean, lurrean eserita.

“Neska duela bi egun iritsi zen Rome Beachera. Ni nengoen harreraren. Debra Windingen izenean gela bat eskatu zuen. Nik ez nion dokumentaziorik eskatu. Guri bost axola zaigu norik egiten duen lo Rome Beachen, kontua ordaintzen badu. 3714 logelako giltza eman nion. Ez zidan esan noiz arte egongo zen. Soineko zuri bat zeraman jantzita, eta ile luzea, solte. Bakarrik iritsi zen. Ez zuen autorik. Kamioizale batek ekarri zuen. Bidaiaren truke felazio bat egin ziola esan zidan gero, gauean. Eguerdi partean iritsi zen. Arratsaldean ez nuen ikusi. Gau partean bai, tabernara jaitsi zen. Ni nengoen gau hartan barraren kargu. Tekila botila bat ateratzeko eskatu zidan, eta baso bat. Mozkortzeko gogoa zuela esan zidan. Eguerdian, ailegatu

zenean jantzita zeraman soineko zuri bera zeraman jantzita. Bizkarra bistan uzten zion soinekoak. Neska polita zen. Eta gaztea. Ez dakit ba, 25 bat urte izango zituen... Hortxe-hortxe. Tekila botila atera nion. Niri berdin zait zenbat edaten duten bezeroek, ordaintzen duten bitartean eta gainerako bezeroak bake santuan uzten dituzten bitartean. Eta Debrak ordaintzen zuen tekila botila. Gau hartan hutsik zegoen taberna. Biok bakarrik geunden. Nola izena nuen galdetu zidan, eta Taylor nintzela esan nion. Nik Debra deitzen nion, bere benetazko izena ote zen ez banekien ere. Berdin zitzaidan. Kontatu zidan Californian barrena bidaiari zebilela. Ez zidan esan nondik zetorren. Baina ulertarazi zidan urrunetik iritsi zela. Esan zidan ez nekiela zeinen gogorra zen bakarrik bidaiatu nahi duen neska gaztea izatea errepidean. Esan zidan bidaiari hartu zuten kamioizale, auto gidari eta motorzale guztiek garrarioaren truke sexua nahi izan zutela. Eta berak jokoaren arauak bidaiari hasi aurretik barneratuak zituela, norbaitek abisatu omen zion hala izango zela, eta hala omen zebilen, sexuarekin ordainduz bidaiari tartea. Nik ezetz esan nion, ez nekiela hori zer zen. Esan zidan etxetik abiatu zenean triste zegoelako izan zela. Baina ez zidan etxekoez deus kontatu. Ez zidan kontatu, ezta ere, zergatik zegoen triste. Esan zidan hippia izan nahi zuela berak. Eta hippiek sexu askea aldarrikatzen dutela. Horregatik saiatu zela garrantzi gutxi ematen sexua trukean eskatzen zioten gizasemei. Baina batzuetan nazka sentitu zuela. Ez beragatik, baina bai parean tokatu izan zitzaizkionengatik. Esan zidan

bidaian denetik pasatu zitzaiola. Berak gizakiaren ontasunean sinesten zuela, baina gizatxar asko ere topatu zuela bidean. Batzuek gaizki eta zikin jokatu zutela berarekin. Beste tekila botila bat eskatu zidan. Eta nik atera egin nion. Trago bat hartzeko esan zidan, eta bakarra, baina hartu nuen. Topa egin zuen, nire edalontziaren kontra txin-txin. Eta gero kontatu zidan Venice Beachetik iritsi zela Rome Beachera. Grazia egin ziola Beach hitza izenean edukitzea, eta horregatik eskatu ziola kamioizaleari bertan uzteko. Trukean, moteleko aparkalekuan zakila zurrupatu omen zion. Lodia eta itsusia zela esan zuen. Ez, ez dakit kamioizalea nor zen, ezta nora zihoan ere. Ez zuen haren izenik aipatu. Nik esan nion kointzidentzia gehiago ere bazeudela izenean: Erroma ere Italiako hiri bat zela esan nion. Ez zekiela erantzun zidan. Ez omen zekien Venezia ere Italiako hiri bat zenik. Esan zidan lehendabiziko aldia zela etxetik ateratzen zela, bidaiatzen zuela. Eta gustatuko litzaiokeela noizbait ozeanoa zeharkatzea eta Italiara joatea. Afrikan dago hori, ezta? galdetu zidan, eta nik ezetz, Europa zela esan nion. Merezi zuela Veneziara joatea. Oso polita dela. Eta Erroma ere bai. Postaletan ikusi nituela esan nion, eta Erromako Koliseoa agertzen zen postal bat erakutsi nion. Polita zela esan zuen, baina hautsi xamarra zegoela, zahartua, eta zergatik ez ote zuten hobeto zaintzen ere galdetu zuen. Gero, Venice Beachen egotea zoragarria izan zela esan zidan. Benetako hippiak topatu zituelan. Dantza egin zuela lehertu arte. Mozkortu egin zela, edonork pasatzen zizkion botilen muturretatik edanez.

Larrugorritan bainatu zela hondartzan. Larrutan egin zuela hondarretan, kontzertuen erdian, hormen kontra... Han ez omen zuen nazkarik sentitu, hangoa benetan omen zen sexu askea. Airean sentitzen omen zen laguntasuna eta harmonia. Esan zidan soineko bakarrarekin atera zela etxetik. Akaso etxekoei ez zien esan ere egin bazihonik; baina hori oraintxe bururatu zaidan zerbait da, ez besterik. Ez dut inongo arrazoirik hori hala dela baieztatzeko. Venice Beachen mundua berea zela sentitu zuela esan zidan hirugarren tekila botila husten ari zela. Eta gero gehitu zuen sentitu bakarrik ezetz; Venice Beachen mundua benen-benetan berea izan zela. Inoiz ez zuela aurretik hori sentitu esan zidan. Mundua ez zela berea inoiz izan. Baina han baietz. Robin izeneko mutil bat ezagutu omen zuen. Ille luzea omen zeraman, hori-horia, zetazkoa zirudiena. Furgoneta batera gonbidatu omen zuen, eta han behin eta berriz larrutan egin omen zuten, marihuana erre bitartean, whiskia edanez, Janis Joplinen ahotsa heltzen zela urrutetik. Hantxe izan omen zen kontziente mundua berea zela. Eta hala zela konturatu zenean, furgoneta barrutik atera eta Volkswagenaren sabai gainera igo omen zen eta burua astindu omen zuen ero moduan, ileek dantza egin zezaten, eta besoak jaso omen zituen, eta gorputza astindu, mundua berea zelako. Eta hori kontatu eta gero, esan zidan hiltzen zen egunean “behin mundua berea izan zen” idaztea nahi zuela hilobian. Nik barre egin nion. Horren gazte eta heriotzaz hizketan ari zelako... Laugarren tekila botila eskatu zidan, eta atera egin nion. Berriz edalontzia

bete eta elkarrekin topa egiteko esan zidan, baina nik ez nuen edalontzia bete. Edalontzi hutsarekin nuen topa. Ordurako oso mozkortuta zegoen. Hizketan jarraitu zuen, baina geroz eta gutxiago ahoskatzen zuen, eta geroz eta gehiago deliratzten zuen... Esaten zuenaren erdia ez nuen ulertzen, eta ulertzen nuenaren erdiak ez zuen koherentziarik... Taberna ixteko garbitzen hasi nintzen. Harrerara joan nintzen, hor ondoan baititugu garbitasunerako gauzak, eta erratzarekin tabernara itzuli nintzenerako lo zegoen, burua barraren gainean. Besoetan hartu nuen, logelara eramateko. Ezkonberriak ginela zirudien, logelara sartzen, bere soineko zuri harekin... Grazia egin zidan burutazio horrek. Txorakeria bat baino ez zen izan. Hurrengo egunean ez zen jaitsi ere egin. Brandyk, garbitzaileak, lo zegoela esan zidan. Ez nintzen larritu. Bezperan bildu zuen mozkorra pasatzeko denbora beharko zuen. Deskantsuan utzi genuen neska gaixoa. Gaur berriz Brandyk lo aurkitu du. Eta pilulak ere bazituela logelan esan dit garbitzaileak. Eta orduan jakin dut hilik zegoela. Gelara igo gara biok, eta Debra Winding hilik zegoela ikusi dugu. Eta zuei deitu dizuegu. Eta kito. Ez dut besterik kontatzeko. Haur jaioberri bat zirudiela lo. Hori baino ez... A, eta, faborez, neskaren familia topatzen duzuenean, ez ahaztu hilobian zer idatzi behar duten esatea”.

–Esango diegu. Joan zaitezke. Pasa dadila Brandy Mayer.